

2023-10-16

PRENTSA-OHARRA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDE ETA EAE-KO HEZKUNTZA LEGEAREN KONTRAKO MANIFESTAZIOAN PARTE HARTZERA ANIMATZEN DUGU HEZKUNTZA-KOMUNITATEA URRIAREN 29AN DONOSTIAN

EHIGEk eskola publikoan oinarritutako hezkuntza sistema propio baten alde egiten du, herritar guztiei kalitatezko hezkuntza, kohesionatua, laikoa eta euskalduna eskaintzeko behar diren baliabide guztiak izango dituen. Helburu hori ez dago jasota Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzen ari den EAEko Hezkuntzaren lege-proiektuan.

Lege-proiektu honek ez du lehenesten eskola publikoa, hurbileko hezkuntza, kohesionatua, laikoa eta euskalduna berma dezakeen bakarra. Eskola publikoa hezkuntza-sistemaren ardatz gisa jarri beharrean, itunpeko irakaskuntzari subsidiariorotasuna emanez, maila berean jartzen ditu eskola publikoa eta itunpeko eskola pribatua, Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoaren bidez. Ondorioz, hezkuntza-sistema publiko-pribatu duala betikitzen du, azken urteetan ikasleak hautatzen eta gizartea desegituratzen gehien lagundu duen tresnetako bat.

Finantzazioari dagokionez, ikastetxe pribatuetara bideratzen ari dira inolako baldintzarik gabe eskola publikoak behar dituen baliabideak. Hala, %16 igo da hezkuntza-itunak finantzatzeko partida, 2 urteko gela guztiak itunduz eta maila guztietako finantzazioa handituz. Bitartean Euskal Eskola Publikoarentzako inbertsio-planik gabe jarraitzen dugu.

Ez dago eskola publikoaren perimetroa handitzeko asmorik lege-proiektuan, ezta pasa den otsailean argitaratu zen planifikazio-dekretu berrian ere. Jada ez zaio plaza publiko bat bermatzen eskatzen duen familia orori, baizik eta Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoko plaza bat.

Euskararen ezagutza eta erabileraren bermeari dagokionez ere, ez dago aurrerapausorik. Eskola publikoak Haur Hezkuntzako ikasleen %97,9 D ereduan dituen bitartean, dozenaka A eta B eredu ituntzen dira sare pribatuan. Egungo D ereduan ditugun hutsuneei erantzun beharrean ikasle guzti-guztiek euskararen ezagutza eta erabilera bermatuz, atzerapausoak emateko arriskua dago lege-proiektuak jasotzen duen “esparru eleaniztuna” deritzonaren bidez.

Amaitzeko, ez dago aurrerapausorik eskola publikoaren etorkizunerako funtsezkoak diren bi esparrutan: parte-hartze eredu eta autonomia. Hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa garatuago dago indarrean dagoen Eskola Publikoaren Legean, proposatutako testuan baino. Gauza bera gertatzen da ikastetxe publikoen erabaki-ahalmenarekin. Berdin finantziatutako eta autonomian mugarik ez duten ikastetxe pribatuekin lehiatu beharko du eskola publikoak.

Guk argi daukagu. Ez dugu behar itunpeko sarearen aldarrikapen historikoak asetzera datorren lege bat. Ez gaitzatela engainatu esaten lege hau gure hezkuntza-sistemaren erronkei erantzutera datorrela. Hau ez da eskola publikoak ezta euskal gizarteak behar duen legea.

Urriaren 29an zatoz Donostiara gurekin “Euskal Eskola Publikoaren alde, Hezkuntza Lege honi ez!” ozen aldarrikatzera.

ANIMAMOS A LA COMUNIDAD EDUCATIVA A MANIFESTARSE A FAVOR DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA Y EN CONTRA DE LA LEY DE EDUCACIÓN EN DONOSTIA EL 29 DE OCTUBRE

EHIGE apuesta por un sistema educativo propio fundamentado en una escuela pública que cuente con todos los recursos necesarios para ofrecer una educación de calidad, cohesionada, laica y euskaldún a toda la ciudadanía. Este objetivo no está recogido en el Proyecto de Ley de Educación del País Vasco.

El Proyecto de Ley no prioriza la escuela pública, la única que puede garantizar una educación de cercanía, cohesionada, laica y euskaldún. En vez de colocar a la escuela pública como eje del sistema educativo, dando a la enseñanza concertada subsidiariedad, coloca al mismo nivel a la escuela pública y a la escuela privada-concertada a través del Servicio Público Vasco de Educación. Así, blinda el sistema dual público-privado, una de las herramientas que más está contribuyendo a la selección del alumnado y a la desestructuración social.

En cuanto a la financiación, se están desviando a los centros concertados los recursos que necesita la escuela pública. Así, ha aumentado en un 16% la financiación de los conciertos educativos sin ningún tipo de condición, concertando todas las aulas de 2 años y aumentando la financiación de todas las etapas. Mientras, seguimos sin un plan de inversiones para la Escuela Pública Vasca.

No hay ninguna intención de aumentar el perímetro de la escuela pública, ni en el Proyecto de Ley ni en el decreto de planificación que se publicó el pasado mes de febrero. Ya no se garantiza una plaza pública a toda familia que lo solicite, sino una del Servicio Público Vasco de Educación.

Tampoco hay avances en la garantía del conocimiento y uso del euskera para todo el alumnado. Mientras que la escuela pública tiene al 97,9% de su alumnado de Educación Infantil en modelo D, se siguen concertando modelos A y B de la red privada. En lugar de responder a los retos que tenemos en el actual modelo D y garantizar el conocimiento y uso del euskera a todos y cada uno de los alumnos y alumnas, existe el riesgo de dar pasos atrás a través del "marco plurilingüe" que contempla el Proyecto de Ley.

Para finalizar, no hay avances en dos ámbitos clave para el futuro de la escuela pública: el modelo de participación y la autonomía. La participación democrática de la comunidad educativa está más desarrollada en la vigente Ley de la Escuela Pública que en el texto propuesto. Lo mismo ocurre con la capacidad de decisión de los centros públicos. La escuela pública va a tener que competir con centros privados igualmente financiados y sin limitaciones en su autonomía.

En EHIGE lo tenemos claro. No necesitamos ninguna ley que venga a satisfacer las reivindicaciones históricas de la red concertada. Que no nos engañen diciendo que esta ley va a responder a los retos de nuestro sistema educativo. Esta no es la ley que necesita la escuela pública ni la sociedad vasca.

Ven a Donostia el 29 de octubre a decir bien alto "Euskal Eskola Publikoaren alde, Hezkuntza Lege honi ez!"